

3 UDALA

Datuen trukaketa online egiteko lau urteko hitzarmena

Lasarte-Oriako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak lau urterako hitzarmena sinatu dute. Akordio horren bitartez, bi erakundeek elkarri eskainiko dizkiete informazio, administrazio eta kudeaketa elektronikoko zerbitzuak. Ondorioz, herritarrek errazago egin ahalko dituzte administrazio-prozedurak eta izapideak, horiek egiterakoan ez baitzaizkie eskatuko datu-zuirtapenak. Bi erakundeek sinatutako hitzarmena hama-bost urtez egon daiteke indarrean, gehien jota.

5 SARE

Giza eskubideen aldeko trena herrian, maiatzaren 29an

Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko trena hilaren 29an, igandearekin igaroko da Lasarte-Oriatik. Egun horretatik aurrera, bagoi bat gehiago edukiko du: kulturarena. Herriko kulturagintzako norbanako eta eragile hainbatek salatuko dute espetxe-politikak kulturalki ere isolatzen dituela presoak. Era berean, ekitaldi sorta bat ere prestatu dute egun horretarako; Lasarte-Oriako tren geltokian hasiko dira, arratsaldeko zazpitan. Hortik aurrera, ordu laudenero, herriko kale eta plazak igaroko ditu trenak; ibilbidea Okendon bukatuko du, 20:30ean. Sare Lasarte-Oriako kideek herritarrek gonbidatzen dituzte ekitaldi horretan parte hartzera.



Zegama-Aizkorriako prest

Bi herritar ariko dira mendi maratoni entzutetsuan, igande honetan



Ivan Granadok (ezkerrean) hirugarrenez hartuko du parte Zegama-Aizkorri mendi maratoni; Xabier Carcedok (eskubian), berriz, lehenengo aldia du aurtengoa.



Tik-tak, tik-tak...atzeratzen ez da geratzen. Egun pare bat besterik ez dira falta Zegama herria mendi lasterketen epizentro bihurtzeko. Bertan izango dira Kilian Jornet, Tadei Pivk, Remi Bonnet, Aritz Egea, Oihana Kortazar, Maite Maiora, Emelie Forsberg... eta baita bi lasarteoriatar ere: Ivan Granado eta Xabier Carcedo. Biek hitz egin dugu igandeko hitzorduari buruz.

Hirugarrenez jarraian jokatu du Zegama-Aizkorri Ivan Granadok. Iaz bost ordu eta hamar minututan osatu zuen 42 kilometro pasatxoko ibilbidea, eta 141. postuan helmugaratu. Aurtengo helburua kronometroa bost ordu baino gutxiagotan geratzea dela azpimarratu du herritarrek. "Gogor" entrenatu du horretarako, eta "itxaropentsu" dago.

Xabier Carcedok ere eramango du erlojua igandean, baina seguruenik ez dio Ivanek bezainbestetan begiratu. Aurten ariko da lehen aldiz Zegama-Aizkorri, eta, guztiaren gainera, lasterketaz eta esperientzia berri horretaz gozatzea du xede.

Bost bat urtez dortsalaren atzetik ibili ostean, aurtengoa lortu du saria Carcedok, azkenean. Dorsala babesle baten bitartez lortu du; Ivan Granadok ere bide horretatik eskuratu du zenbakia. "Ez nuke ezergatik aldatuko aurtengo Zegamako dortsala", nabarmentzen du.

Sentsazioak eta lan-saioak

"Gorputzaldi onean noa Zegamara, baina aurtengo estreinakoz ariko naizenez, duda batzuk ere badituzte: ea nahikoa entrenatu ote dudana, egin dudana aski izango ote den... Hala ere, proba iritsi bitartean ez diot buruari asko eragingo, alferrik baita hori", aipatzen du Carcedok.

Gehienbat, 20-30 kilometro bitarteko lan-saioak egin ditu Carcedok, inguruko mendietan barrena: Andatza, Adarra, Buruntza... Horrez gain, Zegamara ere joan zen, lasterketako ibilbidea ezagutu eta egitera. "Gogorra eta oso teknikoa" dela iruditzen zaio.

Maiatzaren 7an eta 9an, bi egunetan banatuta egin zituen Zegama-Aizkorriko 42 kilometroak Granadok. Larunbatean -7an- 29 kilometro egin zituen, 3:44ko denboran. 9an, aldiz, irteeratik Saint Spiritu ermita arteko bidea -19,5 kilometro- hartu zuen erreferentziatzat. Albiste onak eman zizkion erlojuak: iaz baino bi minutu eta erdi gutxiago behar izan zituen tarte hori egiteko. "Itxaropentsu nago; ea lortzen dudana bost ordutik jaitea", zehazten du herritarrek.

42,195 kilometro ditu luze Zegama-Aizkorri mendi maratoniak, eta 5.472 metroko desnibel metatua. Gakoetako bat probaren faseak eta momentuak ongi neurtzea izango da. Biek daukate planteamendu

zehatz bat buruan. Granadok uste du "mantsoago" hastera komeni zaiola, gero bigarren zatian, Aizkorri igo ostean, korrika gehiago egin eta "egurra" emateko. "165 pultsazio-ren bueltan nahi dut ibili".

"Lehenengo zatia mantso egingo dut, ea azken hamabi kilometroetara fresko samar iristen naizen, hortik aurrera egurrean aritzeko. Eta, ikusten badut ez nabilela horren ongi, erritmoa jaitsiko dut, ez dago arazorik", dio Carcedok.

"Ileak tente-tente"

Aratz, Saint Spiritu, Aitxuri, Andraitz... Fase eta aldapa gogorak ditu Zegama-Aizkorri probak, baina bertan piltzen diren zaleen animoei esker "arinagoak" egiten direla nabarmentzen du Granadok: "Ibilbideak desberdina dirudi probaren egunean! Sekulakoa da giroa, ileak tente-tente jartzen zaizkit".

"Zegamako giroa ikaragarria izan ohi da; oro har, Euskal Herrian giro oso polita daukagu", uste du Carcedok.

**AZKEN ALEAK** !!!

699 €  
**549 €**  
Led 40" PANASONIC CS630

850 €  
**649 €**  
Led 50" PANASONIC TX50CS630

**Bideo Lagunak** TIEN 21

**TOP 21** BEZA

**Josue Igeltseritza**

**Igeltseritza orokorra**

- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak
- Gremioen koordinaketa

606 37 21 05

Atallu pol. atallu. 28 USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

Neure kabuz



**Mailu Arruti**  
Ardura printzipioa

**B**ehin lagun batek esan zidan, bizitza honetan bi gauza eduki behar genituela garbi.

1- Bizitzaz gozatu egin behar genuela, bakarra eta ederregia baita alperrik pasatzen uzteko.

2- Ondorengo belaunaldiei, bizimodu eta mundu hobeago bat uzteaz arduratu behar genuela.

Bigarren honetaz hitz egin nahi nuke aste honetan. Maiatzaren 7an, gure herrian guraso talde batek bere burua aurkeztu zuen, beraien seme-alaben osasunaz arduratuta eta babesteko asmoarekin. Gurasoari baitagokio ardura hori hain zuzen. Eta guraso bati bere seme-alaben osasunaz arduratzea dagokion bezala, ez al dagokie gure arduradun politikoei gure osasunaz arduratzea? Ba barkatuko didazue baina, kasu honetan ez dirudi hala denik.

GuraSOS taldeak, Gipuzkoako Ahdun Nagusiari arduraz jokatu eta mediku eta zientzialarien hitzei kasu egiteko eskatzen die. Erraustegi batek ez baitu bere inguruan bizi den jendearen osasuna bermatzen eta gurasoek bere seme-alabekin bezala, Ahdun nagusiak ere, bere herritarrez arduratu beharko luke. Gerta dakiena bere ardura baita. Zaila iruditzen zait GuraSOS taldeak dionarekin bat ez etortzea. Ahdun Nagusia bera ere, bere seme-alaben osasunaz arduratuko dela iruditzen baitzait. Baina azkenaldian hartutako erabakiak, kontrako norabidean doaz. Beste gauza batzuk, gehiago arduratzen diote nonbait.

Lehen aipatu dudan bezala, ondorengo belaunaldiei mundu eta bizimodu hobe bat uzteaz arduratu behar genuke eta GuraSOS taldeak eskatzen duenak, honetatik dezente dauka. Batez ere, gure arduradun politikoei egin nahi dutenarekin alderatuta. Beraz, GuraSOSek eskatzen duen bera eskatu nahi nuke, "ardura printzipioa", ondoren datozenei mundu hobeago bat utzi ahal izateko.

Zorion agurrak



Markel

Zorionak pottoko zure bostgarren urtebetetzean! June eta familiaren partetik.



Nahia

Zorionak familia! Bikote izatetik, hirukote izatera... Izeba Marijoren partetik muxu handi bana.



Sergio

Zorionak zure hirugarren urtebetetzean!!! Muxu handi bat zure guraso, Ania eta familia guztiaren partetik. Maite zaitugu.



Irati

Zorionak bihotza! I muxu handi handiak zure aita, ama eta Asierren partetik! Ondo pasa zure urtebetetzean!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 37 14 48, txintxarri@txintxarri.eus edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezin Eskaintza

- Bi marrako garajea alokatzen dut, oso handia, 15 metro koadro ingurukoa. Prezioa: 55 euro hilero. 943 37 61 15.
- Garaje marra alokairuan, 11 metro karratu. Donosti Etorbidean, sartzen erraza. 687 271 288.

Salerosketa

- Xbox 360a, hainbat joku eta bi mando salgai. Prezioa negoziagarria. 616 284 801.
- Bidaietarako sehaska, hamaka, parketxo bat eta 9 eta 15 kg. arteko haurrarentzat kotxerako aulkia salgai. Prezioa negoziagarria. 673 256 566.
- Gazte-logela salgai. Armairua ispilarekin, 1,05 m. ohea uda eta neguko koltxoarekin, mesanotxea eta sinfonierra. 450 euro. 673 256 566.

Lan-eskaintza

- Kazetari bat behar da herri-aldizkari batean asteburuko jarduna egiteko. Interesatuak bidali kurrikuluma txintxarri@txintxarri.eus helbidera edo deitu 943 371448 telefonora maiatzak 27a baino lehen.

Lan-eskaria

- Atariak, bulegoak edota etxeak garbitzen egin nahi nuke lan. Nagusiak ere zainduko nituzke. Elena 673 25 65 66
- Etxeko lanak egiten lan egin nahiko nuke. Externa, interna edo orduka. Paperak ditut. Lanean hasteko prest. 632 221 913.
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest. 943 404 015/606 661 048
- Pertsona adinduak, zein haurrak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest, externa modura. Esperientzia dut. Ruth, 617 888 854.
- Pertsona adinduak, zein haurrak zaindu edo garbiketa lanak egiteko neska eskaintzen da. Pertsona adinduak zaintzen esperientzia du. Lanean hasteko prest. 647 743 333.
- Zaintzan edota garbiketara egingo nuke lan. Francisca, 647 27 61 33

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

- Lur Goñi Izagirre, maiatzaren 15ean.
- Ane Adan Liste, maiatzaren 12an.
- Nahia Martinez Ugarte, maiatzaren 11an.
- Diego Magariño Jimenez, maiatzaren 8an.



Heriotzak

- Josefa Zapata Espejo, maiatzaren 17an, 81 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

<b>Ostirala, 13</b>	Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
<b>Larunbata, 14</b>	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
<b>Igandea, 15</b>	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
<b>Astelehena, 16</b>	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Asteartea, 17</b>	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Asteazkena, 18</b>	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Osteguna, 19</b>	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521

**GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero**  
Echeveste Elosegi, Elkano 9  
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munterri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 371 448**  
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Martin Vicioso, Inigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika  
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Seguroa, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

## ERAKUNDEEN AKORDIOA

# Datuen trukaketa Online

Herritarrek errazago egingo dituzte administrazio-prozedurak eta izapideak

Lasarte-Oriako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak lau urteko lankidetzaren hitzarmena sinatu dute. Honen bitartez, informazio, administrazio eta kudeaketa elektronikoko zerbitzuak elkarri eskainiko dizkiete.



Lasarte-Oriako Udalaren webgunean ere egin ahalgo dira administrazio izapideak.

## TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak online datuen lankidetzaren sendoa egingo dute sinatu den akordioa dela eta.

Informazio, administrazio eta kudeaketa elektronikoko zerbitzuak partekatuko dituzte. Era honetara, datu-ziurtagarritasun Sistemari esker, paperezko ziurtagarrien eta gainerako agirien ordeztatu transmisio elektronikoa erabiliko dira, partekatutako informazioaren benekotasun, osotasun, isilekotasun, eskuaragarrtasun eta kontserbazio baldintzak bermatuta.

Eusko Jaurlaritzak helarazitako oharrean azaldu moduan, "erabiliko den Elkarrengarritasun Sistemari esker, paperezko ziurtagarrien eta gainerako agirien ordeztatu transmisio elektronikoa erabiliko dira, partekatutako informazioaren benekotasun, osotasun, isilekotasun, eskuaragarrtasun eta kontserbazio baldintzak bermatuta".

Lau urteko lan-hitzarmena da eta urtez urte luza daiteke. Gehienez hamabost urtez egon daiteke indarrean.

**Onurak**

Honetaz gain, herritarrentzat eta erakundeentzat onurak ekarriko dituela ere adierazten da.

Hitzarmenaren bitartez, herritarrei eskainitako zerbitzua hobetuko eta erraztuko da.

Era berean, administrazioen eraginkortasuna hobetuko da, kostuetan eta egoitzetan aurreztuko da, lan-zama arinduko da eta informazioaren kalitatea hobetuko da.

**Harreman elektronikoa ahalbideratu**

11/2007 Legea betetzeko urrats bat gehiago eman dute bi erakundeek. Honen arabera, administrazio publiko guztiek haiekin harremanetan jartzeko bide elektronikoa erabili ahal izatea bermatu eta beren artean informazioa trukatu behar dute, herritarrek izapide administratiboak errazago egin ditzaten.

Lasarte-Oriako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren usteetan, "beharrezkoa da administrazio elektronikoa azkar eta modu eraginkorrean garatzea, herritarren eta administrazioen arteko harreman elektronikoa ahalbideratzeko".

## Unai Villenarekin solasean

Ikasturte honetako azken saioa egin zuten Irakurle Txokoko kideek astearte arratsaldean. Unai Villena elgoibartarraren 'Hauts haietatik' eleberria izan zuten aztergai, eta idazlea bera ere etorri zen kultur etxera, liburuari buruz hitz egin eta idatzi bitarteko prozesua kontatu eta partekatuz.

Ander da istorioaren protagonista. 33 urte ditu, eta psikiatrikotik atera berria da. Drogarekiko menpekotasunaren eta eskizofreniaren menpe egin behar dio aurre egunero koari. Oier laguna izango du alboan Anderrek; idazlea da Oier, eta lagunak eskatuta, garai bateko gertakari batzuei buruz idatziko du, Anderri laguntzeko bizitza bera ulertzen. 90eko hamarkadako Eibarren dago kokatua kontakizuna. 2014ko Igartza saria irabazi zuen Villenak, eleberria proiektu zenean oraindik.



Irakurle Txokoko kideekin egon zen Unai Villena idazle elgoibartarra, asteartean.

Ahots eta estilo aniztasuna da 'Hauts haietatik' eleberriaren ezaugarrietako bat. Villenak asteartean nabarmendu zuenez, eleberria bera "gaixotasunaren eta menpekotasunaren metafora" izan daiteke: "Gaixo zaudenean sentimendu oso desberdinak eduki ditzakezu egun batetik bestera, eta

gauza bera gerta dakieke irakurleei liburu honekin. Menpekotasunarekin ere, berdin: hasieran oso engantxatuta egon zaitezke, handik gutxira dena zalantzan jarri...".

Gustura entzun zituzten Irakurle Txokoko kideek Villenaren hitzak, eta eleberriari buruzko iritzia eman ere bai.

## IPAR MARTXA

### Azkortera irteera bihar

Ostadar SKTko Ipar Martxa taldeak bihar Azkorte ermitara irteera antolatu du. Goizeko 9:00etan Okendo plazatik irten eta Azkorte bidea egingo du taldeak. Ibilaldia 3 ordukoa izatea espero da. Osteen, mahaiaren inguruan Arrieskalleta elkartean indarrak berreskuratu ahalgo dituzte nahi dutenek.

Taldeak irteeran parte hartzeko Ostadar SKTko bulegoan izena ematea gomendatzen du. Bazkariak 10 euro balio ditu.

## HAUTESKUNDEAK

### Posta bidezko bozka

Ekainaren 26an Diputatuen Kongresurako eta Senaturako Hauteskundeak ospatuko dira. Hori dela eta alderdi ezberdinek egun horretan Lasarte-Orian ez dauden herritarrei posta bidezko bozka erabili dezaketela gogorarazten diete.

EAJk ondorengo telefono zenbakiak jarri ditu interesatu guztien eskura posta bidezko botoa tramitzeko zalantza guztiak argitzeko, 689 719 018 eta 943 363409.

PSE-EEk berriz, Ganbo kalea 1 zenbakian dagoen Casa del Pueblon azalpen guztiak eskainiko dituztela jakitera eman du.

## IBILALDIA

### Autobusa Durangora

Maiatzaren 29an, Ibilaldia ospatuko da Durangon. Ttakun Kultur elkarteak Hernaniko Dobera Elkartarekin batera autobusa antolatu da. Autobusa 9:15ean aterako da Lasarte-Oriako Tajamar Errotondako geltokitik. Buelatuko autobusa, berriz, 19:00etan izango da.

Txartelak salgai daude dagoeneko Ttakuneko bulegoan 12 euro-tara. Ttakun KEeko bazkideek prezio berezia dute, 10 euro. Edozein argibide behar izanez gero, 943 37 14 48 zenbakira deitu dezakezu.

## GURASOLANDIA

### Haurren haserrealdia nola kudeatu

Gurasolandia ekimenak Lasarte-Oriako 2 eta 3 urte arteko haurren gurasoei zuzendutako 'Emozioak onartzen eta haserrealdia kudeatzen' tailerra antolatu du maiatzaren 24an, asteartean, 17:00etan Villa Mirentxun.

Sabeletik Mundura elkartearekin elkarlanean antolatutako saio honetan, Mireia Centenok psikologoak hainbat gako emango ditu besteak beste, gurasoek haurren agresibitatea instintu bezala ulertu, haserrealdia ezagutu eta haien emozioak nola bideratu ikasteko.

### Zumaburu eskolako zaharberritze lanak esleitu dira

Zumaburu-Sasoeta eskola publikoko Zumaburu erakineko estalkia eta fatxada zaharberrituko dira aurki.

Eslaban Obras y Servicios SL enpresak eramango ditu aurrera lanak. Fatxada SATE sistemaren bidez isolamendua zaharberrituko dute kanpoaldetik, oraingo estalkia eratsi eta haren ordeztatu zeramikozkoa jarriko dute eta beheko patioa gune estaligabeak metalezko estaligabeak baten bidez estaliko dituzte. Hau egiteko 381.456,87 euroko aurrekontua du.


Lasarte-Oriako Udalak jakitera eman duenez, enpresa adjudikatarioak lizitazioaren hobekuntza batzuk eskaini zituen, hasiera batean aurreikusitako obra batzuekin, eta horrek 28.387 euro aurrezteko dakarkio Udalari. Hobekuntzak honako hauek dira: estalkian segurtasun-kableak instalatzea, barruko patioa hormigoizko hormak egokitzea, galtzada-

rrizko zorua garbitzea, barruko patioa zutabeak egokitzea eta kolpeetatik babestekoak ipintzea, paretetako berriak hornitzea, kanpoko patioa zutabeetan kolpeetatik babestekoak ipintzea eta ikasgeletako sabai eta paretetan hezetan konpontzea.

Obren zuzendaritza Markitec arkitektura-estudioak gainbegiratu du.

Lasarte-Oriako Udalak adierazi duenez, zuzendaritza aktua sinatzeko ostegun honetan egingo den bileran zehaztuko da obren egutegia, "eskola-umeei eragingo dieten afektazioak ahalik gutxien izan daitezkeen".

Honetaz gain, lan hauetarako Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailean diru-laguntza izapidea egin eta ebazpena baieztatu izan dela ere helarazten du. Era honetara, 219.652,60 euro jasoko ditu Lasarte-Oriako Udalak, kostuaren % 58a.



Goierreko Alex Lopez kideak elektrizitateko faktura ulertzeko gakoak eskaini zituen.



Etxeko energia kontsumoan leihoen kalitateak duen garrantziak mintzo zen Luis Mari Carballo.

## Energia aurrezteak, gure esku

### Etxeko energia erabilera nola hobetu aztertu da

**Etxetan energia era jasangarrian nola erabili ikasi ahal izan dute astean zehar Energiaren Kontsumo Jasangarriaren astean barruko hitzaldi ziklora hurbildu diren herritarrek. Asteartetik ostegunera hainbat hitzaldi izan dira Manuel Lekuona kultur etxean; bihar, berriz, energi azoka izango da Okendo plazan.**

#### TXINTXARRI

Asteartean hasi zen Energia Kontsumo Jasangarriaren astea. Honen bitartez, herritarrek energiaren kontsumo ekologiko eta eraginkorra egiteko eman ahal diren pausoak azaldu nahi dute Lasarte-Oriako Udalak eta Usurbilgo Lanbide Eskolak.

Asteartean, Hernaniko Kursaal enpresako kideek eraikinietako fatxaden isola-

tze eta birgaitzeari buruz hitz egin zuten.

Halaber, Usurbilgo Lanbide Eskolaren Enegur eraikin berria ezagutu ahal izan zen. Eraginkortasun energetikoa kontuan eraikitako espazio dugu hau.

Mertxe Alzuguren Udaleko Kontsumitzaileen Informazioarako Udal Bulegoko arduradunak herritarren esku dauden zerbitzuak azaldu zituen asteazkeneko solasaldian.

Honetaz gain, jarraian eskainiko zen gaiarekin lotuaz, gaur egun elektrizitate fakturek sortzen dituzten kexen kopurua handia dela aipatu zuen Mertxek. "Herritarrek ez dituzte faktura elektrikoak ulertzen eta gainera, askotan behar baino potentzia gehiago dute kontratatua. Hemendik hasi beharko ginateke".

Ostean, Alex Lopez Goierreko kooperatibako kideak faktura elektriko hainbat kontzeptu ulertzeko giltzak eman zituen.

Hala nola, Estatuko sistema elektrikoak dituen lau etapa ezberdinak azaldu zituen, ekoizleak, banaketa, komertzializazioa eta kontsumitzailea.

Atzo gure etxean energia kontsumoa nola murriztu azal-



Mertxe Alzuguren KIUB-eko arduraduna zerbitzuak azaltzen.

du zen. Luis Mari Carballo Alcar Leihoak enpresako kideak etxeko leihoen garrantziak eta kalitateetat mintzo zen eta Gorka Apaolaza irakasleak berriz, argiteriari buruz hitz egin zuen. Dauden argi ezberdinak eta hauen kontsumoak.

#### Energia Azoka

Bihar, Usurbilgo Lanbide Eskolak energia berriztagarrien arloan garatutako zenbait proiektu erakutsiko dituzte Okendo plazan.

Goierreko kooperatibako lagunak ere izango dira herritarrei faktura elektrikoaren irakurketa nola egin azaltzen.

Honetaz gain, Antonio Mercero gunean, Landaberri DBH4ko gazteen argazki erakusketa izango da. Bertan ikasleek asteartean Usurbilgo Lanbide eskolara egindako irteeran aterako irudiak ikusi ahal izango dira.

Azoka Gipuzkoako Foru Aldundiak, Usurbilgo Lanbide Eskolak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatutakoa da.

### Erraustegiaren ondorioak osasunean jardunaldiak

GuraSOsek jendartearen elkarlanean bultzatu eta osasungintzako profesionalen arteko eztabaida guneak bideratzeko jardunaldia antolatu ditu bihar, Orona-Ideko gunean.

'Erraustegiaren ondorioak' izenburupean, gurasoak, familiak, osasun komunitatea eta hezkuntza komunitatea bildu nahi dituzte ekitaldi honetan.

16:30ean, Fernando Palacios Ikerketa Zientifikoen Goi Zentroko zientzialari tituluak Erraustegiaren eraginaren gainean argitaratu den informazio zientifikoa aztertu egingo du. Bereziki gai arriskutsuen metaketa eta sakabanaketa ingurunean, hondakin-mota ezberdinek sortzen dituzten gai arriskutsuen identifikazioa eta eraginak, eta kaltetutako biztanleengan sortzen dituzten patologiak azalduko ditu.

Ostean, Erraustegia eta Osasuna Taldeko txostenaren eta ekimenen azalpena ere eskainiko da.

Hauek amaitzean, osasun komunitatea, hezkuntza komunitatea eta gizarte arloko mahai-inguruak egingo dira.

Haur eta gaztetxoentzat jarduerak eta jolasak ere prestatu dituzte.

#### Gaixo taldea Lasarte-Orian

Jardunaldi hauetaz baliatuz, larunbata goizean, 11:30ean Manuel Lekuona Kultur etxean erraustegiaren ondorioak aztertuko dituen hitzaldi izango da.

Honetan, Madrilgo Valderrama herriko minbizi gaixo talde baten esperientzia azalduko dute. Taldeak erraustegiaren aurka auzkeztu du salaketa eta tramitera onartua izan da.

## Lasarte-Orian 575 helegite Erraustegiaren ingurumen baimenaren aurka

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko asanbladaren deia erantzunez, 4.000 errekurso baino gehiago erregistratu dituzte herritarrek Eusko Jaurlaritzak erraustegia egiteko emandako ingurumen baimenaren kontra. Horietako 575 Lasarte-Orian bildu dira Aire Garbiak plataformak jakinarazi duenez.

Erraustegiaren Mugimenduko aipatzen duenez, norbanakoek haien kabuz erregistratuak "zenbatezina dira". Bestetik, 20 bat udalek eta hainbat elkarte ere helegite administratiboa sartu dute.

#### Helegiteak

Mugimenduko azaltzen duenez, errekursoaren funtsa, 2016ko apirilaren 11ko ebaz-

pena eman zenerako, proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpena eta ingurumenaren baimen bateratua iraungituta zeudela da.

"Gogoratu behar da 2015 apirilaren 23an prentsan agertu zela ingurumen bateratua bertan behera utzi zuela Gipuzkoako Foru Aldundiak," dio hedabideetara bidalitako oharrean.

Eusko Jaurlaritzak pasa den apirilaren 11ean luzatu zuen 2010eko baimena, "proiektuaren aldaketa nabarmenik ez dagoela ebatziz. Aipatu behar da Eusko Jaurlaritzak ez zuela baimenaren berri eman, errekursoa jartzeko epea inor enteratu gabe pasatzeko asmoarekin. Zuzen-zuzenean afektatutako udalei

ere (Lasarte-Oria, kasu) ez die abisatu. Hala ere, azkenean ezin izan dute ezkutatu".

#### Kamixetak serigrafatu

Bestalde, Aire Garbiak bere logoarekin erraustegiaren kontrako kamixetak serigrafatzeko aukera eskainiko du Okendo plazan, ostiral eta larunbatean.

Interesatuak kamixeta ilun bat (beltz, urdin...) eraman beharko dute eta momentuan estapatuko zaie.

Ostiralean, ordutegia 18:00etatik 21:00etara izango da; larunbatean, berriz, 11:30etik 13:30era.

Ekimen hau maiatzaren 29an Onkologiko eta Diputazio bitartean egingo den giza-katea girotzeko egiten ari den kanpainaren barruan dago.

# Giza Eskubideen aldeko trenak Lasarte-Orian

Maiatzaren 29an igaroko da Sarek antolatu duen ekimen berezia

**Maiatzaren 29an, igandearekin, Lasarte-Orian geldituko da euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko trenak. 19:00etatik aurrera, herriko kultura-erakundeek hainbat eragile eta norbanakok salatuko dute espetxe-politikak kulturalki ere isolatzen dituela presoak. Egun horretatik aurrera, beraz, giza eskubideen aldeko trenak bagoi bat gehiago edukiko du: kulturarena.**

## TXINTXARRI

Sarek urtarrilean abian jarritako erronkak, euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideak errespetatzen dituen trenak, maiatzaren 29an, igandearekin, egingo du geldialdia Lasarte-Orian. Herriko kaleetan barrena errebindikazioz jositako ekitaldiak burutuko dituzte gure herriko kultura-erakundeek hainbat norbanako eta eragileek. Era berean, espetxe-politikak presoak kulturalki ere isolatzen dituela salatuko dute. "Kartzeletan urratzen diren eskubide guztiak islatuko dira ekintzetan; alai izango da, eta errebindikazioz bete aldi berean", adierazi dute Sare Lasarte-Oriako kideek. Astelehen arratsaldean aurkeztu zuten egitasmoa, tren geltokian.

19:00etan hasiko da lehenengo ekitaldia, tren gelto-

kian bertan. "Kultura" izango da aldarrikatuko duten eskubidea. Handik ordu laurdenera, Pintore eta Pablo Mutiozabal kaleen arteko zabalgunean, "ikasteko eskubidea" izango da protagonista. Sagardotegi kalekoa izango da hurrengoa, 19:30ean; "euskara espetxean" izango du oinarri. 19:45ean Elizatze plazan geratuko da trenak, "osasun eskubidea" aldarrikatzeko. 20:00etan, Brigitarren plazan, dispersioa salatuko dute, eta biziarteko zigorrak handik ordu laurdenera, Askatasunaren parkean. Azkeneko geldialdia Okendo plazan egingo du trenak, 20:30ean: "eskubideen urraketa" eskatuko dute treneko bidaiari guztiak.

Xumela, Txalagore taldea, Joseba Tapia, pailazoak, herriko literatur txokoko kideak, antzezleak, abeslariak, bertso-



Asteleheneko aurkezpenean, Sareko kideak, ekimenean parte hartuko duten ordezkariak eta herritarrak bildu ziren.

lariak, txistulariak... Esan bezala, herriko kultura-erakundeek osatzen duten hainbat norbanako eta eragilek hartuko dute parte maiatzaren 29ko egitasmoan.

### Espainia eta Frantziako gobernuei eskaerak

Ekitaldia aurkeztearekin batera, Sare Lasarte-Oriako kideek hainbat eskaera egin zizkieten Espainiako eta Frantziako gobernuei: dispersio politikaren amaiera, gaixo dauden preso askatasuna, 70 urtetik gora eta kondenaren bi herenak jada beteta dituztenak kaleratzea, iheslari eta depor-

tuatuak euren eskubideen jabe izatea -besteak beste, osasuna, lanpostu duina edota euren eskubide zibila eta politikoak bermatuak izan ditzatela, eurak Euskal Herrira bueltatzea ahalbidetuz- eta kolektibo zehatz baten kontra ematen diren salbuespen legeen amaiera.

"Gatazka konpontze alde-za ezinbestekoa da urrats horiek ematea, gure ustez; elkarbizitzan oinarrituko den bake eszenatoki bat ahalbidetuko luke", nabarmendu zuten Sareko kideek agerraldian. "Ondorio horiek gainditu ezean, ezingo da gatazka

amaitutzat eman; eremu lan eginez, trenen bagoiak gehituz jarraituko dugu: euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde egotetik, horiek berma daitezkeen lan egitera pasako gara", zehaztu zuten. "Kolektibo horien eskubideak urratuak diren heinean, gure jendartearen ere urratuak dira".

Aurkezpen ekitaldia amaitu aurretik, Sareko kideek lasarteoriatar denak gonbidatu zituzten maiatzaren 29an pasako den trenera igo eta giza eskubideen aldeko ekimenean parte hartzera.

## Rafa Lopez en lana Alquimia fanzinean

Rafa Lopez herritarraren kontakizunetako bat Alquimia Fanzineko hilabete honetako zenbakian argitaratu dute.

Kontakizunak 'Carassius Auratus' du izenburua. Idazleak azaldu modura, arraingorri bat da protagonista eta honek "bere ikuspegitik, bere beirazko" mundutik pertsonak nola ikusten dituen azaldu du.

Ez da hau Lasarte-Oriaren duen lotura bakarra. Izan ere, 62. zenbaki honetako aurkezpena Lasarte-Oriako Trumoi tabernan egin baitzen maiatzaren 12an.

### Alquimia Fanzinea

Alquimia Fanzinea fanzine literario ilustratua da. 2005. urtean sortu zen eta underground kultura literarioa zabaltzeko tresna bezala defini-

nitzen du Rafa Lopezek. Honetan kontakizunak, olerkiak eta ilustrazioak aurki daitezke.

Fanzinea Donostian banatzen da batik bat. Oretan Mikelazulo kultur gunean eta orain ere Trumoi Tabernan eskuratu daiteke.

Fanzineko web orrian, [www.alquimiefanzine.org](http://www.alquimiefanzine.org), ere kontakizun guztiak eskuragarri daude.



Rafa Lopez idazlea eskubian eta eta Raul Andres fanzinearekin harremanetan jarri zuen laguna.

# ISLANDIA



aurora borealak  
- ABENDUAREN 3TIK 8RA -

## BIDAIA TALDEAN

irteera Lasarte-Oriatik

Erreserbak eta informazioa bulegoan



**NOAO BIDAIAK**  
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria  
T. 943 373 613 - info@noaobidaia.com  
www.noaobidaia.com



## ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

---

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua


- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria • Tel: 943 36 12 78 / 943 36 16 55 / 943 36 24 51

## LABURRAK.-

## Buruntzazpiko infantilak Gipuzkoako txapeldun

Buruntzazpiko txirrindulari infantilek osatutakoa izan zen talderik onena pasa den larunbatean Irunen jokatu-tako Gipuzkoako taldekako erlojupeko proban. Markel Aristegik, Ander Altunak, Asier Pozok, Iñaki Errazkinek eta Beñat Carbayedak osatu zuten bosteko taldea.



Bestalde, junior mailan ari den Jokin Alberdi izan zen bizkorrena Zegaman. Nagusitasunez irabazi zuen txirrindulari gazteak, bigarren eta hirugarren sailkatuei 36 segundo ateraz. Ordu bat, 51 minutu eta bederatzigundotan osatu zuen ibilbidea.

## Villamedianak, Berasartek eta Arzalluzek uzta oparoa ekarri dute bueltan Tarbesetik

Frantziako Tarbes hirian aritu ziren Buruntzaldea IKTko kide Janire Berasarte, Irati Arzalluz eta Nahia Jie Villamediana, pasa den asteburuan. Uzta oparoa ekarri zuten bueltan Lasarte-Oriara: zortzi marka personal eta taldeko bi errekor berri.

Janire Berasartek taldeko 16 urteko bi errekor ondu zituen, 400 eta 800 libre probetan.

## Errugbia ikasi, gozatu eta ezagutzeko topaketak bihar goizean, Michelingo zelaian

Beltzak errugbi eskolak topaketa batzuk antolatu ditu Landaberri eta Sasoeta ikastetxeetako gaztetxoentzat. Bihar goizean elkartuko dira denak, Michelinen, 11:15ean. Ordu horretan hasi eta 13:00ak arte, hainbat jolas egingo dituzte neska-mutilek. Ondoren, "hirugarren denbora" famatua egingo dute, topaketei amaiera emateko. "Borondatezkoa" izango da parte-hartzea; animatzen diren ikasleek aski izango dute kirol txandal bat jantzita eramatearekin, antolatzaileek zehaztu dutenez.

## Raul Gomez Margallo bigarren Minbiziaren aurkako lasterketan, Donostian

Hainbat herritarrek -guztira, 34k- hartu zuten parte II. Minbiziaren aurkako lasterketan, Donostian, pasa den igandean. Raul Gomez Margallo izan zen azkarrena; bigarren postuan helmugaratu zen, 22:34ko denbora eginez. Zazpi segundo gutxiago behar izan zituen ibilbidea osatzeko irabazleak, Imanol Gonzalez donostiarrak. Emakumezkoetan, Claudia Behobide hondarribitarra izan zen bizkorrena. Lehenengo herritarra, berriz, Maite Salazar izan zen, 29:59ko denbora eginez.

## Alebinen artean kirola sustatzen

Udaleko Kirol Zerbitzuak dinamizatutako alebinen kirol sustapenaren aurtengo kanpaina bukaerara ari da iristen. Gaztetxoek ikasturtean zehar barneratutako kontzeptuak praktikara eramango dituzte bihar, 12:00etatik aurrera, Michelingo atletismo pistan. Kirola egiteko arropa eramatea beharrezkoa dela gogorarazi dute antolatzaileek. Kirol materiala ere zozketatuko dute.

## ATLETISMOA.-

## Podiumean, behin eta berriro

Lau urre, bi zilar eta hiru brontze erdietsi dituzte LOKEko atleta jubenil eta juniorrek Euskadiko txapelketan

Lepo-aldea karga-karga eginda ekarri dute LOKEko atleta jubenil eta juniorrek, hainbat domina kolkotan, iragan asteburuan Durangon jokatu-tako Euskadiko txapelketatik. Lau urre, bi zilar eta hiru brontzekoa izan da lasarte-riatarrek Bizkaia aldean jasotako uzta.



## IÑIGO GONZALEZ

Bederatzi domina erdietsi dituzte LOKEko atleta jubenil eta juniorrek, kategoria horietako Euskadiko txapelketan, Durangon. Oscar Goikoetxea prestatzailearen balorazioak ezin zuen bestelakoa izan: "Asteburua oso ongi joan zen; Espainiakoetan aritzeko gutxienekoak lortu zituzten zenbait atletak, aintzat hartuta gainera oraindik ez daudela euren sasoi puntu onenean, aire libreko denboraldiaren fase erabakigarria ez baita iritsi oraindik".

Amaia Harto eta Xalba Otxandorena jubenilek brontzeko domina bana kolkoratu zuten, jabalina jaurtiketan

LOKEko jubenil eta juniorrek Euskadiko txapelketa bikaina burutu dute.

E. BUSTO

eta jauzi hirukoitzean, hurrenez hurren.

Beste zazpiak junior mailakoek lortu zituzten. Eneritz Bustok, bi: urrea 100 metro lauetan eta zilarrezkoa 100 metro hesietan. Ane Galardik beste pare bat jantzi zituen, urrezkoa eta zilarrezkoa baita ere, luzerakoan zein jauzi hirukoitzean, hurrenez hurren. Maider Rekondo jaurtizaileak, azkenik, bi urre eta brontze bat ekarri zituen Durangotik bueltan: urrezkoak pisu zein disko jaurtiketa probetan lortu zituen, eta brontzekoa jabalina jaurtitzeko. Guztira, beraz, bederatzigundotan dominak zakura.

Asteburu honetan, Super Amara BAT taldearekin klubean ligan ariko dira LOKEko zenbait atleta emakumezko. Gizonezkoetan, BATEko taldekideetako bat Gaizka Ormazabal herritarra izango da. Madrilan konpetituko du.

Datorren asteburuan, aldiz, absolutu mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu du LOKEk.

## Harrobia, sendoa

Eskolarteko mailan ari diren gaztetxoak proba konbinatuen txapelketan ariko dira, belodromoan. "Gipuzkoa mailan hobekien aritzen diren atletak ariko dira han; gurekin dabil-tzan hamar gaztetxo egongo dira horien artean. Batzuek, gainera, domina lortzeko aukerak dituzte", azpimarratu du Goikoetxeak.

Bestalde, Landaberri ikastetxe-ko infantilak bigarren izan ziren Ordizian, taldekakoan. Hori gutxi balitz, klubaren historian aurrenekoz, kategoria horretan mutilen taldea ere atera dute. Argi du Goikoetxeak: "Herrian etorkizuna dauka klubak eta atletismoak; harrobi sendoa daukagu".



Atletismoak badu etorkizuna herrian; Landaberriko infantilak 2. izan ziren taldekakoan.

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Ostirala 20

Mendibeltz, Orio, 20:00etan

Orioko FT - Ostadar SKT

Erregionalen Ohorezko maila

34. jardunaldia. Ligako azken jardunaldia

dute Mikel Medina eta Gabi Sanchezenek.

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 20

Herriko areto-futbol txapelketa,

Kontsolazio Liga

Kirol-gunea, 19:45ean

Also - Txoko

Kirol-gunea, 20:45ean

Reformas Lagunak - Urdaneta HK

Larunbata 21

Kirol gunea, 12:00etan

Viña del Mar - Txoko

## SASKIBALOIA

Larunbata 21

Udal Kiroldegia, 16:00etan

Ostadar SKT - Cafes Aitona

Partizipazioko kadete neskek, klubean

arteko txapelketa,

3. jardunaldia.

Igandea 22

Bidebieta, Donostia, 10:00etan

Easo 01 - Ostadar SKT

Errendimenduko kadete neskek,

Udaberrikoa, 3. jardunaldia.

## MENDI LASTERKETAK

Larunbata 21

Goizueta, 9:00etan

Beñat Los Arcos eta Miguel

Granado herritarrek Goizutrail

mendi lasterketan hartuko dute

parte. Ibilbide laburra osatuko dute

biek, hamar kilometrokoa.

Igandea 22

Zegama, 9:00etan

Ivan Granado eta Xabier Carcedo

herritarrek Zegama-Aizkorri mendi

maratoi entzutetsua burutuko dute.

42,195 kilometro ditu ibilbideak, eta

5.472 metroko desnibel positibo

metatua.

## PILOTA

Ostirala 20

Sahatsaga pilotalekua, Getaria, 19:40ean

Gure Txeru - Intza KE

2. urteko alebinak, Gipuzkoakoa.

Igandea 22

Gurea pilotalekua, Azkoitia, 11:00etan

Juaristi (Azkoitia) - Solano (Intza)

Seniorren Udaberrikoa, lau t'erdia.

## GIMNASIA ERRITMIKOA

Igandea 22

Majori kiroldegia, Ordizia, goizean zehar

LOKEko hainbat gimnastak Udaberri

txapelketako bigarren fasea jokatu

dute. LOKEko infantilak uztaiekin

ariko dira. Landaberri eta Sasoetako

taldeak berriz, estilo librean eta baita

pilotekin ere.

## Agenda

Larunbata 21, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea



### Musika eta umoreaz gozatu

SuBerri akordeoi taldeak eta Tutik Clowns-ek umorea eta musika uztartuko dituzte ikuskizun magikoan. Ikusle guztiari zuzendutako lana da. Ondo pasatzeko, bizirik sentitzeko eta barreak eragiteko aukera emango du saioak. Ikuskizun honetan zuzeneko musika SuBerri Akordeoi Taldeak eskainiko du, eta bere hamabi kideek musikaren kalitatea bermatuko dute. Bestalde, elkarreraginean, Tutik Clowns taldearen umoreaz eta magia gozatzeko aukera izango da. Sarrera doakoa.

OKENDO PLAZA

Igandea 29, arratsaldea

Dantza taldeek alarde txiki egingo dute Kale Nagusian zehar eta ostean, emanaldia eskainiko dute.

### Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

Maiatzaren zehar

Estudio del Pintor akademiako ikasleek haien lanak aurkeztu dituzte.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Astelehena 30- Ekainak 11

Brancussi akademiako ikasleen lanak ikusgai izango dira.

### Usurbil

### Proiektzioa

SUTEGI AUDITORIOA

Gaur, ostirala 20, 19:00etan

Sagardo Egunaren aurrekari gisa, 'Sagardoa bidegile' dokumentalaren proiektzioa egingo dute.

### Sagardo Eguna

KAXKOA ETA MIKEL LABOA PLAZA

Igandea 22, egun osoan zehar

35. Sagardo eguna egingo da. Ekitaldiak egingo dira egun osoan zehar.

### Donostia

### Urteurrena

MARIAREN BIHOTZA

Gaur, ostirala 20, 19:30ean

Alboka Abesbatzak ONCEko Alaia abesbatzaren 25. urteurreneko kontzertuan parte hartuko du.

### Lasarte-Oria

### Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 21, 11:30ean

Erraustegiak osasunean dituen eragin kaltegarrien testigantza. GuraSOS plataformak antolatutako hitzaldia.

### Txirrinka

HIPODROMOKO ZUBIA

Larunbata 21, 12:30ean

'AHT eta tokian tokiko proiektu txikitzaileak' salatzen dituen ekimena Lasarte-Oriatik igaroko da. Hipodromoko Zubitik sartu, herrian ibilbide bat egin eta Euskotreneko biribilgunean Zubietako lagunek Lasarte-Oriakoei testigua emango diete. Hauek Hernanira egingo dute.

### Energia astea

OKENDO PLAZA

Larunbata 21, goiza osoa

Energia feria izango da ikusgai.

12:00etan, Faktura elektrikoaren azalpena GOIENERen eskutik.

ANTONIO MERCERO GUNEA

Larunbata 21, goiza osoa

Landaberri DBH4ko ikasleek Usurbilgo Lanbide Eskolara egindako bisitaren argazkiak ikusgai.

### Musika

MENDI KAFE-ROCK

Larunbata 21, 20:00etan

Lee Juniorrek 80. hamarkadako Rock and roll doinuak eskainiko ditu. Doan.

### Dantzari Eguna

OKENDO PLAZA

Larunbata 28, 18:15etik aurrera

Lasarte-Oriako Erketz EDTren eskutik, II. Dantzari eguna egingo da. Andoaingo Urki dantza taldea eta Faltzeseko Makaia taldeak parte hartuko dute. Lasarte-Oriako kaleetatik desfilea eta emanaldia izango dira.

### Dantzari Txiki Eguna

LASARTE-ORIA

Igandea 29, goiza

Erketz EDT-k antolatzen duen, 28. Dantzari Txiki egunean, Euskal geografiako sei taldek auzo ezberdinak alaituko dituzte.



## Herritarren txokoa

### Maria Auxiliadoraren omenezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren omenezko meza ospatuko da, maiatzaren 22an, igandean, 12:00etan. Ostean hamaiketako izango da.

### Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, maiatzaren 30ean, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

### Italiara bidaiak

Uda honetan Roma, Florentzia... aldeira modu independentean bidaiatzeko 40 eta 55 urte arteko pertsonak osatutako taldea sortu nahiko nuke. Anima zaitetz! Harremanetarako, 667 075 139, Asun. WhatsAppera ere erantzuten du.

### Eskutitza

## Landaberriko hezkuntza komunitatearen kezka erraustegiaren inguruan

Lasarte-Oriako Landaberri ikastolako hezkuntza komunitatea kezkatuta dago Zubietako Letabide inguruan, ikastolako Lehen Hezkuntzako egoitza kilometro eskas batera, Gipuzkoako Aldundiak eraiki nahi duen errauste-plantak airera isuriko dituen askotariko gai toxikoen ikaste-txeko ikasle zein langileengan, sor ditzakeen osasun kalteengatik.

Badirudi prentsan, hainbat gizarte eragileen informazio kanpainetan, eta modu profesionalean ikerketan diharduten ikastetxeko zenbait gurasok eginitako kontraste lanetan azaltzen denagatik; erraustetza-plantak osasunean kalte larriak sortzen dituela ondorioztatzen duten ikerketak gehiago direla, aurkakoa diotenak baino. Uste hau, gero eta errotuago dago gure hezkuntza komunitatean OEIT-GEIS mediku taldeak afera honen aurrean "arreta printzipioa" aplikatzeko egin duen eskaera eta gero.

Hau guztia dela eta, Landaberri ikastolako Organo Gorenak komenigarria ikusten du hurrengo gaiak argitzea:

1-Gai honen inguruan bai Hezkuntza Sailak, bai Foru Aldundiaren Ingurumen sailak duen iritzia.

2-OEIT-GEIS mediku taldeak sarean publiko egin duen txostena aztertu eta kontrastatu ote duten.

3-Kezkatzeko arrazoirik ez dela baderitza, eskola komunitateak arren eskatzen du azaltzeko zein ikerketa eta datuetan oinarritzen den hori justifikatzeko.

Eta gai hauek argitzeko, gutuna bidali diegu bai Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkarri den Gema González de Txabarriri eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen saileko diputatu den Jose Ignacio Asensiori.

LANDABERRI IKASTOLAKO  
ORDEZKARITZA ORGANO GORENA

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi  
edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintzarri@txintzarri.eus

Jagoba Mendizabal Aktorea

# “Inprobisatzeko eskatzen ziguten”

Herritar gaztea ‘Aundiya’ filma grabatzen aritu da egunotan

Aktore lanetan lehenengo esperientzia izan du Jagoba Mendizabalek ‘Aundiya’ filmean. Migel Joakin Elizegiren, Altzoko Handiaren, anaia gazte Isidoren papera interpretatuko du Jon Garañok eta Aitor Arregik zuzenduko duten lanean. Esperientzia berria izan da berarentzat, baina ez du uste aktore izaten jarraituko duenik. Halere, ez dio zinemaren munduari ateak guztiz itxi.

Martin Vicoso

**A**ltzoko Handiari buruzko istorioak askok entzun dituzte. Halere, oso gutxi dakigu Migel Joakin Elizegiri buruz. 2 metro eta 43 zentimetro neurtzen zituena, eta zirkoko ikuskizuna balitz bezala, munduko toki askotan erakutsi zuten.

Moriarti ekoizpen etxeak –‘Loreak’ eta ‘80 egunean’, besteak beste– Elizegiren bizitza pantaila handira eramateko apustua egin du, Aitor Arregiren eta Jon Garañoren zuzendaritzapean. Aktoreen artean lasarteoriatar bat dugu: Jagoba Mendizabal. 17 urteko gaztea lehen aldiz jarri da kamara aurrean eta Altzoko Handiaren anaia gaztearen papera interpretatu du.

## Aktore kasualitatez

Mendizabalek inoiz ez zuen pentsatu film batean agertuko zenik. Aitortu duenez, ez da “bereziki zinemazalea”. Irakasle baten bitartez aurkeztu zen kastinera. “Lagun batek esan zion –irakasleari– profil zehatz baten bila zebiltzala, eta niri eta beste pare bati komentatu ziguten aukera”. Donostian frogak egin, eta handik gutxira jaso zuen deia. Isidro antzeztuko zuen ‘Aundiyan’, protagonistaren anaia gaztea, hain zuzen.

Ikusmina sortu du ‘Aundiya’. Moriarti ekoizpen etxeak arrakasta izan du azken urteetan; batez ere, ‘Loreak’ eta ‘80 egunean’ filmekin. Urtero ez dute Oscar sarietako hautagaitza borrokatuko, baina Euskal Herrikan kanporako errekonozimendua lortzeko exijentzia handitzen du.

Mendizabalek, gehienbat, hasieran sumatu zuen “urdu-ritasuna”. “Grabaketa hasi aurretik zuzendariak aktoreekin hitz egin zuten banan bana. Ez kezkatzeko esaten

ziguten”. Ordutik aurrera, “eroso” ibili dela nabarmendu du. Dena den, ez du aktore lana ofizio bilakatzeko asmorik momentuz. “Beste kasting baterako deituko balidate, agian joango nintzateke, baina ez dut paperak bilatzen aritzeko asmorik”.

## Esperientzia bikaina

Pozik agertu da egindako lanarekin. Zinemaren mundua bertatik bertara ez zuen ezagutzen, eta film bat barrutik nola egiten den ikusteko balio izan dio. “Lehenengo egunean dena egin zitzaidan arraro, baina ez zitzaidan gehiegi kostatu ingurugirora ohitzea”.

Gidoiak ikasten arazo handirik ez du izan, batez ere, inprobisazioa landu baitute. “Egoera batzuetan jarri gintuzten eta hortik aurrera inprobisatu egiten genuen beste pertsonaia batzuekin batera. Ez genuen elkarrizketa handirik ikasi behar”. Eszenaren bat gaizki ateraz gero, ordea, behar den guztietan errepikatzen dituztela azaldu du.

Mendizabal, esan bezala, Isidro izango da ‘Aundiyan’. Hasieran, 8 urte izango ditu eta, beraz, ez da agertuko ekoizpenaren lehenengo zatian. Beranduago sartuko da lasarteoriatarra, Isidrok 17 urte inguru betetzen ditueanean. Halaber, tarte batean ez da istorioan izango. Izan ere, Migel Joakin Elizegi bere anaia Martinek lagundu zuen bidaietan.

Aktore esperientziadunekin egin du lan Jagoba Mendizabalek ‘Aundiyan’. Goenkale bizitza luzeko tele-sailean aritutakoak dira bi protagonista nagusiak: Eneko Sagardoy –Altzoko Handi– eta Joseba Usabiaga –haren anaia Martin–.

Haiekin lan egin izanak “asko” lagundu dio. Azpima-



Altzoko Handiaren anaia papera antzeztu du Jagoba Mendizabalek.

rratu du “erlazio ona” eduki duela haiekin lehenengo momentutik, eta haiei esker “asko ikasi duela”. Besteak beste, “inprobisazio egoerei hobeto aurre egiten”.

## Grabaketa

Lehenengo aldiz, filmak nola grabatzen diren ikusteko eta bizitzeko aukera izan zuen lasarteoriatarrek. “Nik uste nuen azkarrago joango zela dena, baina arreta handiz egiten dituzte gauzak, eta eszena bakarra grabatu ahal izateko egun osoa hartu dezakete”.

Filmatze egunetan lanean ari den jende kopuruak ere “harritu” egin zuen. Aktore gazteak nabarmendu duenez, kamara atzean langile ugari egoten da “xehetasun guztiak kontrolatzen”.

XIX. mendean oinarritutako istorioa da ‘Aundiya’. Horrek “eragin handia” eduki du jantzetan, makillajeetan edota dekoratuetan, esaterako.

“Baserrri giroan kokatuta egonik, nik uste dut zaila izango zutela filmazioarako eraikin aproposak aurkitzea. Etxe oso zaharretan grabatu dugu, garaia ahalik eta hobekien irudikatuzeko”.

Euskal Herriko leku askotan egin dute filmazioa. Halere, Mendizabalek Beizaman eta Ezkio-Itsason grabatutako sekuentzietan hartu du parte. Horietaz gain, Bilbon, Biarritzen, Donostian, Hondarribian, Zerainen edota Alzonen bertan aritu dira lanean.

Hizkuntzari dagokionez,

aldaketa handirik ez du egin behar izan Mendizabalek. “Alzonen eta Lasarte-Orian ez dugu berdinean egiten euskaraz, baina ez dago desberdintasun handirik”.

Adibidez, Eneko Sagarduy filmeko aktore nagusiak, Durangarra izaki, aldaketa handiagoak egin behar izan ditu. “Bere hizkera moldatu du”, beti ere eroso dagoen erregistroa mantenduz.

Efektu bereziek garrantzia handia izango dute Garañok eta Arregik zuzendu duten filmean. Izan ere, euskaraz egiten duten 2 metrotik gorako aktore asko ez daude. Horregatik, Eneko Sagardoy handitzeko baliabide teknikoak erabiliko dituzte.

## Mitoea eta errealtatea

Lehenago aipatu bezala, Migel Joakin Elizegiri buruz ez dakigu asko. Horregatik, “ezagunak diren datuak errespetatu dituzte, eta horien gainean istorio bat asmatu dute”.

Garaño zuzendariak berak aitortu duenez, “askotan istorio kontraesankorrak iritsi zazkigu Altzoko Handiari buruz”.

Ezaguna zuen pertsonaia Mendizabalek grabaketa hasi aurretik. “Etxean adituta nuen Altzoko Handiari buruzko istorio bat edo beste, baina egia da filmarekin hastean gehiago ezagutu dudala”.

Ez da Elizegiri buruz egiten den lehenengo lana. 2010ean Koldo Izagirrek eta David Azurzak “Altzoko Haundia” opereta taulagaineratu zuten, baina umeei

zuzendutako lana izan zen gehienbat.

## Euskal zinemaren gorakada

Gero eta gehiago dira euskaraz arrakastatsuak diren filmak. ‘Loreak’ eta ‘Amama’ lanek Euskal Herrikan kanpora zeresana eman dute. Nominazio eta sariak irabazteak, dudarik gabe, ospea ematen du, baina diotenez “ez da nahikoa”.

Mendizabalen ustez “lan ona egin da azken urteotan, eta aurrekoak arrakasta izateak ateak irekiko dizkie atzetik datozenei”.

Euskarazko beste proiektu batzuekin alderatuz, inbertsio handia egin dute ‘Aundiya’-kin. Jon Garañok azaldu zuenez, “buruhauste handiak izan zituzten aurre-ekoizpen lanetan”. Dena den, “prest” daudela nabarmendu du zuzendari donostiarrek.

Mendizabal, aitortu duenez, ez da “oso zinemazalea”. Goenkale telesaila ikusi izan du eta, beraz, gogoko dituen aktore gehienak bertatik pasatukoak dira. Gogokoenarengatik galdetzean, Ramon Agirre nabarmendu du.

Oraindik ez dugu datarik ‘Aundiya’ zinemari ikusi ahal izateko, baina 2017an estreinatzea espero dute egileek. Dudarik gabe, filmak datorren urteetan zeresan handia emango du euskal zinemari eta, nori daki, agian kanpoan ere. Lasarteoriatar bat, Jagoba Mendizabal, bertan izango dugu.

*“Hasieran urduri negoen. Aktore lanetan berria nintzen eta ez nuen inor ezagutzen; bai zuzendariak, baita aktore esperientziadunek ere eroso egoten lagundu ninduten”*